

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, apirilak 11

ARITZ

Mendiko bizikletan maldan behera

Linazisoro



ARRASATE TL. 79 50 12-79 59 99

PREZIOAK
BEHERA



INTERESAK
BEHERA

Pintxo bereziak, kazuelitak, bokadiloak..., edota kopatxo bat lagun artean hartu nahi baduzu, zatoz Kayak tabernara. Berriz ere zabaldu dugu Matxiategi 3 behean.



JABE BERRIAK

KAYAK



APIRILAREN 29TIK
EKAINAREN 3RA ARTE.
ASTEARTETAN,
ARRATSALDEKO
6:30ETATIK 8:30ETARA

Sukaldaritza begetarianoa IKASTAROA

Matrikula-epea apirilaren 23ra arte zabalik.
Plaza mugatuak (15/20 lagun)
Inskripzioa: 2.000 pta., 1.500 pta. bazkideek.



Antolatzailea: Jardun elkarte
Laguntzailea:
EROSKiko Kontsumitzaileen elkarte



BERRIGARA

PROTALDE JAUREGIA
 10 Bergara
 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Agintaratuak:

Agintaratuak: Elkartea.

Bereziak:

Bereziak: Azkarate

Bereziak:

Bereziak: Mendibil
 Elkoroberezibar

Bereziak:

Bereziak: Urbe

Bereziak:

Bereziak: Romero

Bereziak:

Bereziak: Elortza

Bereziak:

Bereziak: Plazaola

Bereziak: Laskurain

Bereziak: Labaien

Bereziak:

Bereziak: Elortza

Bereziak: Angel Elkoroberezibar

Bereziak: Labaien

Bereziak:

Bereziak: Rodriguez

Bereziak: Ortega & Jon Alvarez

Bereziak: Ugalde

Bereziak: Azkarate

Bereziak:

Bereziak: Gorri taldea

Bereziak:

Bereziak: ale.

Bereziak:

Bereziak: Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Bereziak:

BERRIGARA

Bereziak:

Bereziak: 50191

Bereziak:

Bereziak: 6599

BERRIGARA ez du bere gain
 erantzumen adierazitako
 erantzumen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
 Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Euzko Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko
 Jauriaritzaren Kultura
 Sailaren laguntza jaso du


Z E B E R R I D A ?

JOSE LUIS BEITIA

Ipintzako futbol txapelketakoa

- Zer erabaki zenu-
 ten eguasteneko bile-
 ran? Nagusien futbol
 txapelketarik egingo al
 da aurten?

- Hasieran nahiko ilun
 ikusten genuen kontua,
 baina nik uste dut azke-
 nean, aurten ere, nagu-
 sien futbol txapelketa jo-
 katuko dela. Asuntorik
 nekezena arbitroena da.
 Aurreko urtetan jendea
 erretzen joan da eta be-
 raz partiduak arbitratze-
 ko prest dagoen jendea
 lortu beharko dugu dato-
 zen egunetan. Martitze-
 nean beste bilera bat
 egingo dugu eta orduan
 erabakiko da zer egin
 baina, seguruen, txapel-
 ketaren beste edizio bat
 jokatuko da Ipintzan
 maitzaren 26tik aurrera.
 Antolaketa aurrera era-
 mango duen 8-10 lagu-
 neko taldea osatu nahi



dugu.

- Baldintzak, iazko
 berdinak izango dira?

- Bai, kategoria baka-
 rra izango da, 18 urtetik
 gorako jokalariei zuzen-
 duta, eta izena emateko
 epea maiatzaren 21era
 arte izango da zabalik.
 Talde bakoitzak federatu-
 tako lau jokalaria aurkeztu
 ahal izango ditu eta parti-
 du guztiak Ipintzan joka-
 tuko dira.

**“Aurten ere, seguruen, Ipintzako nagusien
 futbol txapelketa antolatuko dugu”**

I T U R R I O N E T I K

Diputazioko ordezkariak
 Egin-Mallea berriztearen alde

Atzo eguna Diputazioko Kultur Departamentuko
 ordezkariak Egin Mallea etxearen egoera aztertzen
 izan ziren, Udaleko ordezkarien laguntzarekin.
 Gipuzkoan berrizteko dauden ondare kulturalako
 monumentu guztiak aztertzen ari dira Kultur
 Departamentukoak. Atzo, Egin Malleako fatxada
 berriztearen aldeko jarrera azaldu zuten. Hala ere,
 Diputazioak ez du berrikuntza lanen diru kopuru osoa
 ordaintzen eta beraz etxearen jabeen adostasuna eta
 laguntza beharko da. Baliteke Udalak ere obretan
 laguntzea. Fatxadako berrizte lanen aurrekontua lau
 milioi pezetakoa da.

E S A N
 D U T E

“Hauxe dio kronistak:
 Ez dakit jakingo
 duzun HBko
 Arranoak nola sortu
 ziren. Bergaran egin
 zen lehenengo HBko
 egoitza. Garai hartan
 zuk zutabetxo bat
 egiten zenuen
 EGINen. Arrano
 Beltza zuen izena eta
 hortik sortu zitzaigun
 gure txokoari Arrano
 elkartea jaritzea.
 Baina izena
 erregistratzeraz joan
 ginenean, esan
 ziguten bazegoela
 beste bat izen
 horrekin eta orduan,
 Artatse izena jarri
 genion. Baina denok
 Arrano izenarekin
 ezagutu dugu”.

**XABIER
 AMURIZA**
 Bertsolaria
 EGIN

“Aitor Elkorok
 garaipen historikoa
 lortu zuen Labriten
 eta, Gipuzkoan,
 Josean Tolosa
 txapeldun ohiaren
 ordezkaria bihurtu da.
 Amezketakoa napar
 bati Labriten irabazten
 zion azkena izan
 genuen (Bengoetxea
 III.ari, 22-17), 1982an.
 Inork ezin zuen uste
 Elkorok Eugi
 kantxatik pelotadaka
 aterako zuenik”

XABI FRANÇEZ
 Kazetaria
 EGIN



¿DE QUE SE RIEN LAS MUJERES?

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.



SPACE JAM

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



RIDICULE

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Joaquin Oristrellek** zuzendutako komedia honetan **Veronica Forque**, **Candela Peña** eta **Adriana Ozores** dira protagonista nagusiak, hiru ahizten paperean. Bere aitaren ezkontza berri batera joan eta *Luciren* (**Veronica Forque**) gizona hil egingo da. Ahizten laguntzaz, *ezbehar* hori gainditzen ahaleginduko da...

▼▼ **Michael Jordan** NBako saskibaloijokalaria ezaguna eta **Bugs Bunny** marrazki bizidunetako pertsonaia ospetsua bildu ditu, azken teknologiarik esker, **Warner Bros** produktorak. **Bugs Bunny** bere lagunak estuasunetan jarri ditu *Nerdlucks* beldurgarrien aurka saskibaloijokari bat antolatzean. Nahiz eta **Jordanen** laguntza izan, gogotik bota beharko dute izerdia...

▼▼ **Patrice Leconte** frantziarrak (*El marido de la peluquera*) zuzendutako filme hau aurtengo *Oscarretarako* izendatu zuten, atzerritar filme onenen artean. Era berean, Frantziako Zine Akademiak ematen dituen *Cesar* sarietan saritu zuten. 1780 urteko Versaillesen girotuta, boterea dutenen inguruko gora-beherak azaltzen zaizkigu.

Deiak

▼ **1964**an jaiotako bergararren afaria apirilaren 19an. Izen-ematea Plazako kioskoan.

▼ **1963**an jaiotako bazkaria hilaren 26an. Izen-ematea Arkupe, Ariznoa, Kortazar eta Urratsen.

▼ **Barrenkale**koen bazkaria hilaren 19an, 14:30etan. Izen-ematea Biltokin, Dixulan, Intxortan, Lazkanon edo Oilagorran.

▼ **Karlos Galarragaren** mar-go erakusketa Kultur Etxean.

▼ **Aranzadi Ikastolan** ibilitakoen bazkari herrikoia hilaren 27an Seminarioan. Izen-ematea (hilaren 18ra arte) Kortazarren, Ariznoan edo Ikastolan bertan.

Ogia

▼ **Domeka 13:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 11:** Estella.
- ▼ **Zapatua 12:** Mozos.
- ▼ **Domeka 13:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 14:** Camacho.
- ▼ **Martitzena 15:** Puy.
- ▼ **Eguaztena 16:** Guallar.
- ▼ **Eguena 17:** Estella.



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA
Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak
Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

Fernando Etxabbarri

"Jam-eko kontzertuek oso erantzun ona izan dute"

Apirilaren 5ean sei hilabete bete ziren Jam aretoa zabaldu zenetik. Fernando Etxabbarri aretoko arduradunetako batek orain arte egindako lanaren balantzea egin digu. Etxabbarri pozik azaltzen da bai antolatutako ekitaldiak eta baita jendearen erantzunarekin ere.

- Nola baloratuko zenuke orain arte egindakoa?

- Pozik gaude, urritik hona antolatutako programazioak erantzun ona izan duelako. Aurrera egiteko animatzen gaitu horrek eta, jakina, jendearen jarrera eskertu beharrean gaude.

- Zeintzuk izan dira emanaldirik arrakastatsuenak?

- Skunk Anansie taldearen kontzertua nabarmenduko nuke. Oso talde ona dela erakutsi zuen: 30 lagun etorri ziren, bi autobus..., oso muntaia oso ona zeukaten eta jendea oso gustora irten zen kontzertutik. Horrez gain, Biohazard eta Vargas Blues Band taldeekin ere aretoa jendez gainezka egon zen. Hirurak emanaldi bikainak izan ziren.



"Lin Ton Taun taldeak promoziorako bideo bat grabatu du aretoan".

Ekartzen ditugun taldeak ez dira punta-puntakoak baina Jam-en neurriko aretoetarako oso talde aproposak dira.

- Eta promotoreen zirkuituan sartzea lortu duzue...

- Hona etortzen diren hainbat talde Madriletik eta Bartzelonatik datoz, askok Estatuan hiru emanaldi besterik ez dituzten eskeintzen. Eta askotan Madrilen edo Bartzelonan baino jende gehiago erakartzen dute Bergaran.

- Orain, eguenetan, gazte taldeen emanaldiak antolatzen hasi zarete. Nolako erantzuna jaso duzue?

- Esperientzia ona da, aste barruan Bergaran gauza gutxi dago eta. Alde horretatik jendeari hasten ari diren musika taldeak ezagutzeko aukera ematen zaio eta jendeak interes handiz hartzen ditu horrelako kontzertuak.

- Kontzertuez aparte, bestelako emanaldiak ere antolatu duzue, ezta?

- Bai, striptease saioak, antzerki emanaldiren bat ere egin dugu... Horrelakoak antolatzen jarraitzeko asmoa daukagu. Era berean, zapatu honetan moduan, herri bazkariak eta horrelakoak egitea interesatzen zaigu. Horrelakoren bat antolatzeko asmoa duten kolektibo guztiei gure kolaborazioa eskeini nahi diegu. Era guztietako ekitaldiak antolatu nahi ditugu, aretoari bizia eman azken batean.

- Etorkizunera begira proiekturik?

- Zenbait talde entsaiatzera, zuzeneko emanaldiak gertatzera etorri dira eta asko gustatu zaie aretoa. Adibidez, Lin Ton Taunek promozio bideo bat grabatu du aretoan eta bide horretatik jarraituta bideo eta telebistarako grabazioen bat egitea gustatuko litzaiguke.

- Zeintzuk izango dira hurrengo emanaldiak?

- Datorren zapatuan Los del Tonos taldea etorriko da, Cradle of Feel hilaren 26an, The plinsouls maiatzaren 8an... Eta osteguneko emanaldiekin jarraituko dugu. Datorren astean Lilimoon taldea etorriko da.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokatak eta tapizatuak •

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Testila greban, noiz arte?

Hemezortzi egun bete dituzte jadanik, Algodonera eta Tavesako langileek greban. Bi aste luze, berea dena aldarrikatzen. Azkenengo hiru urteetan, Bergarako historian garrantzia izan duten bi enpresa hauetako langileek ez dute soldata igoerarik izan. Baina ez da izan lantegiek irabazirik izan ez dutelako. 1.200 milioi inguruko irabaziak izan zituen Tavex taldeak 1995eko urtean, eta 1.150 bat milioi (besterik ez) pasa den urtean. Langileek, berriz, azken hiru urteetan soldata berdinak jaso dituzte, nahiz eta bizi-maila denontzat igo den.

Komunikabideek aditzera eman dutenez, enpresetako buruak, negoziatzeko prest agertu omen dira. Hala ere, joan zen martxoaren 22tik bi lantegietako ateetan dauden langileen ordezkari sindikalek ez dute patronalaren inongo deirik jaso. Zertan ari dira? Zergatik diote arazoa konpondu nahi dutela, zuzenki inplikaturik daudenekin hitzegin nahi ez badute?

Eratat barneraturik daukagun kapitalismo basati honentzat garestiegiak omen dira Bergarako instalazioak. Gainera, beste herrialde batzuetan produzitzea merkeagoa izanik, erreza da pentsatzea epe luzera Bergarako testil sektorea horren beltza denik, baina horrenbeste milioi irabazita, zer dauka txarra, soldaten %4ko igoera eskatzeak, hiru urtetan %12,3 galdu ondoren?

MARIJO DEOGRACIAS

Igokundeko San Martin

Frantzizkotar Zurutuza jaunari:
Leengo kondaira zaleek, Igokundeko Martiñi buruz, idatzitako batzuen berri ematera natorkizu:

“Evangelización del Japón” (Marcelo Ribadeneira O.F.M.), “Disertación histórica” (Fray Marcos de Alcalá O.F.M.), “Un vasco entre los mártires de Nagasaki” (Ignacio Omaetxeberria, O.F.M.), “Vida maravillosa de San Martín de Agirre” (Eustaquio María de Nenclares), “Con licencia. Acerca del apellido y patria de San Martín de Agirre y Ascension. Apuntes sobre la controversia entre las villas” (Juan de Unamuno), “Revisión en los dos pueblos” (Bonifacio Etxegarai jaunak eta Lorenzo Pérez fraileak Torrubia apaizari).

Fray Lorenzo Perez eta Etxegarai jaunak, Bergarako pilotalekuan eman zuten jardunaldian esandakoak jakinarazi nai dizkizut. Beasaingoak zeuzkaten zeaztasunak ikusi ondoren, kikilduta zaudela eta, bergararrok, aiek baño zeaztasun geiago izango ez baginuzke Martin ez zela izango ez Beasaingoa eta ez Bergarakoa.

Bergaratarrek zituzten, eta ditxugun zeaztasunak eta, orduko idazkiak, ikusi eta irakurri ondoren, aiek esandakoekin, ziara poztuta, gelditxu ginen.

Badirudi, gaur, Arantzazun zaudeten, frantzizkotar batzuk beintzat Agirre zaleek, eta bergaratarrok zirikatuta naian zabilatzatela ematen du, ez ibili alperrik, gu aurrerantzean ere, orain arte bezela, tinko jarraituko dugu, Agirre zela, eta Bergaran jaioa gañera, zalantzarik ere ez dugulako.

NATALIO JUARISTI

Beasaindarrok daukazutenekin Amunabarro aldiñ, Loinaz kapela, Loina futbol zelaia, Loinaz burbin biltokia eta abar benetan pozik egotekoa da, nik berriz beñe-pein Martin biei oitotz egiten diet argitu gaitzala... Donokiratzen geranean, ikusiko ditxugula biak Santu egiñik.

Arantzazu aldizkari mordoxka bat, pillaturik dauzkat, azkenego lau edo boost pillatu ala ez, zalantzan nago, egia esan, miñ aundia emon dozte benetan, eta miñ emoten saiatu zarete, nori? Aldizkaria goratzen saiatu direnei ez ote?

Joan dan urteko, Pentekoste aurreko igandean, Loyola irratian Beasaingo jaiak nolakoak izaten diran, egin zuten jardunaldian, Igokundeko San Martin gipuzkoarra, erabili zuten, pozik egon nintzen entzuten, baño, jaioterriari buruz Amunabarro aitxatu zuenean, lurperatuta gelditu nintzan, eta idatzi nion esanaz, bla bla bla ez jardutzeko, sustarretik egiak jakin gabe, aurtengo otsailean, oso egoki egon dira.

Arendoi berriz, beti bezela poliki-poliki asi eta gero (erderazko esaerak diñuan bezela, el que no quiere taza, taza y media) nik uste dot ulertuko duzula nere esanaia, ori ote da lagun urkoaganako maitasuna? ala besteentzako dira komendi orrek?

Naikoa esan dotelakoan nago, eta lagatzera noia, geiegirik esan ez dezadan. Benetako pakea zuekin eta gurekin. Agur bero-bero bat.

Tiira biraka



Sukaldaritza begetarianoa

Jardunak, Eroskiko Kontsumitzaileen Elkartearen laguntzarekin, sukaldaritza begetariano ikastaroa antolatu du apirilaren 29tik ekainaren 3ra arte. Ikastaroa astearteetan emango da arratsaldeko 6:30etatik 8:30etara, eta irakaslea Silvana, Oi Lur atsedean etxeko sukaldaria, izango da. 15-20 lagun onartuko dira bakarrik. Izen-ematea Jardunen egin daiteke apirilaren 23a baino lehen. Prezioa: 1.500 pta. Jarduneko bazkideentzat eta 2.000 gainontzekoentzat.

Eguneko zentrua

Jubilatuena egoitzan eguneko zentrua jartzeko Aste Santu ostean hastekoak ziren obrak atzeratu egin dira, lanak egiteko eskaririk aurkeztu ez delako. Lanak egingo dituenik agertu ez denez, presupuestoa %21 igo eta 7.600.000 pezetan geratu da. Orain, eskariak egiteko 13 eguneko epea dago eta lanak adjudikatzen direnetik 120 egun obrak amaitzeko.

JAIOTAKOAK

Iban Moreno Toro
Martxoak 31.



Azkunak inauguratu zuen, iazko azaroan, anbulatorio berriztua.

Anbulatorioan espezialitate gehiago jartzeko eskaria Osakidetzari

Udalak idatzi bat bidali dio Osakidetzari anbulatorioan gaur egun eskaintzen ez diren ahalik eta espezialitate gehienak emateko eskatuz. Traumatologia eta erradiologia espezialitateak berehala ematea premiazkoa dela eta, lehenbailehen jartzeko eskatzen da.

Osasun zerbitzuan atentitu dituzten onuradunei buruzko azterketa egin dute anbulatorioan eta ikerketa horren arabera herritar asko dira Bergaran hainbat espezialitate ez dagoenez, Arrasateko anbulatoriora joan behar izaten dutenak. Guz-

tira, bergararren 3.459 kontsulta egin ziren Arrasateko anbulatorioan iaz. Espezialitateei dagokierik, X izpiak erabili ziren gehien (1.177). Oftalmologoarenerako, berriz, 519 bolante egin ziren; dermatologoarenerako 379; otorrinolaringolorako 372; liseriketa arazoengatik 152 eta erreuma arazoengatik, azkenik, 120.

Anbulatorioa iazko azaroan inauguratu zuen Iñaki Azkuna Osasun sailburuak, hainbat berrikuntza lan egin eta gero. 75 milioi pezeta gastatu ziren eta bigarren pisua zabaldu zen. Bestek bes-

te, liburutegia, aldagelak, bilera gelak eta kontsulta berriak egin ziren. Beheko pisuan, berriz, harrera lekua, itxarongelak, asistentzia eremuak, erreabilitazio unitatea, gimnasioa eta hainbat kontsulta egokitu ziren. Azkuna Bergarara etorri zenean espezialitate berriak jartzeko eskaria egin zitzaion, baina Oñatiko anbulatorioan premia haundiagoak zeudela esan zuen sailburuak.

Bergarako anbulatorioan kardiologia, zirugia, barne medikuntza eta ginekologia espezialitateak eskaintzen dira une honetan.

KONDE PANADEROKUA

OKINDEGI-GOZOTEGI BERRIA

Toki Eder Plaza 3 (Espaloiaren ondoan).
Tlf. 76 14 87



Inaugurazioa, zapatuan, apirilak 12, 13:30etatik 14:30etara. Lunch-a egongo da, zatoz!

APIRILAREN 13AN, IGANDEA, OGI-TXANDA.

Xipizaro ludoteka

Udaleku irekietan begirale izateko izena emateko epea datorren astelehenean, hilak 14, hasi eta apirilaren 25era arte zabalik izango da. Interesatuak, Aranzadi Ikastolako lokaletik pasa daitezke izena ematera.

Pegatina lehiaketa

Datorren astelehenean amaituko da Jardunek Pazkuetan ateratzen duen pegatinako esaldia asmatzeko lehiaketa. Gogoratu dezagun, lehiaketan parte hartu nahi duenak proposatzen duen esaldia, izen-abizenak eta telefonoa paper batean apuntatu eta herriko ikastetxeetan eta hainbat tabernatan jarri diren kutxetako batean sartu beharko duela. Aukeratzen den esaldia Bergarako jaietako pegatinetan erabiliko da eta egileak 10.000 pezetako saria jasoko du.

Mendi irteerak

Pol-Pol Mendizale Taldeak Adarrara egun guztirako irteera antolatu du apirilaren 20an 14 urtetik gorako gazteentzako. Irteera goizeko 8:30etan izango da Beheko Estazioan. Bestalde, Gorla Alpinok eta Pol-Polek Larraitzera eta Uharte-Arakilera mendi irteera antolatu dute egun berean hau ere egun guztirako. Irteera goizeko 8etan izango da Frontoian eta mendizale guztiak daude gonbidatuta.

Pazkuetako txoznak

Apirilaren 25ean, eguakitza, 13:30etan amaituko da Pazkuetan Bideberrin txoznak jartzeko eskariak egiteko epea. Eskaera orriak Udaletxeko idazkaritzan jaso daitezke.



Andres Indurainen iazko Bergara Hiria lehiaketako irabazlearen argazkia.

Argazki eta komiki lehiaketak Udalaren eta Jardunen eskutik

Euskadi osoko afizionatuek aurkeztu ditzakete lanak

Bergara Hiria argazki lehiaketaren XIII. edizioa eta kirol argazkien VII.a konbokatu ditu Udalak; Jardunek, bestalde, V. Komiki Lehiaketarako deia zabaldu du.

Bergara Hiria argazki lehiaketara Euskadin bizi den edozein afizionatu aurkeztu ahal izango da eta gaia librea izango da. Zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu daitezke eta mota bakoitzeko lau argazki gehienez. Argazkiak 30 x 40 zentimetroko kartulinar aurkeztuko dira, nahiz eta argazkiaren tamaina bakoitzaren aukeran gelditu. Lanak maiatzaren 8a baino lehen bidali beharko dira Kultur Etxera; sari banaketa maiatzaren 24an egingo da. 25.000, 20.000, 15.000 eta 10.000 pezetako sariak banatuko dira.

Kirol argazkien lehiaketarako oinarriak eta sariak berdinak izango dira, baina gaia kirola izango da eta lanak maiatzaren 20a baino lehen bidali beharko dira Kirol Zerbitzura. Sari banaketa 30ean egingo da.

Jardunek antolatu duen komiki lehiaketara, bestalde, 12 urtetik gorako edozein aurkeztu daiteke. Lan guztiak argitaragabeak, euskaraz idatziak eta originalak izan beharko dira eta hiru talde bereiztuko dira: Lehenengo, 12 urtetik 14ra bitartekoa; bigarrena, 14tik 18ra artekoa, eta hirugarrena, 18 urtetik gorakoa. Lanak DIN-A3 formatoan aurkeztu beharko dira ekainaren 6a baino lehen Jardunen. 128.000 pezeta banatuko dira saritan eta talde bakoitzeko hiru onenek jasoko dute saria.

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 **BERGARA**
☎ 79 91 82 **ARRASATE**

Negoziatzen hasi dira Tavesako langileak eta zuzendaritza

Algodonerako eta Tavesako langileek dagoeneko hiru aste daramatzate huelgan. Astean zehar hainbat protesta ekitaldi egin dituzte. Berrigarak jakin duenez, gaur biltzekoak ziren enpresa komiteko eta negoziazio komisioko ordezkariak, arazoari irtenbidea topatzeko. Biltzeko eskaria asteazkenean egin zuten langileek.

Bestalde, Algodonera eta Tavesako lantegien etorkizuna konpetibitatean dagoela adierazi du Daniel Perezek, Tavex taldeko giza baliabideen arduradunak, Berrigarara bidalitako prentsa ohar baten bitartez. Idazkian azaltzen denez, Bergarako lantegien arazo nagusia lehiakortasunean datza, tela bake-roen alorrean, garestien produzitzen duten lantegiak direlako Bergarakoak eta arazoa konpontzen ez bada, kolokan egon daitekeelako Bergarako lantegien etorkizuna. "Egia da Tavex taldeak iraba-

ziak izan dituela azken bi urteetan, baina egia da, era berean, Bergarako lantegietan dirua galdu egin dela urte hauetan" dio Daniel Perezek. Bestalde, Bergarako lantegien lehiakortasun ezaren arrazoi nagusiak, "soldata altuak eta produzitzeko malgutasun eza" direla esaten da idazkian.

Sindikatuak eskatzen duten soldata igoera indarrean jarriko balitz, langile normal baten urteko kostua 5.400.000 pezetakoa izango litzatekeela dio giza baliabideen arduradunak: "estatuko konpetentziakoen orduko kostua baino %100 gehiago, eta Estatu Batuetako merkaturako kontutan hartuz gero, %60 gehiago".

Bukatzeko, Tavesa eta Algodonerako zuzendaritza soldata igoerak, aurrejubilazioak eta langile berrien soldatak sindikatuarekin negoziatzeko prest dagoela dio Daniel Perezek.



Algodonera eta Tavesako langileek hainbat protesta ekitaldi egin dituzte astean zehar.

Zezenzaleak-en irteera

Zezenzaleak taldeak Biasterira txangoa antolatu du apirilaren 26an Santamaria anaien Los Molinos ganadutegia bisitatzerako. Goizeko 8:30etan izango da irteera Frontoian; 10:00etan, berriz, Heredad Ugarte bodegetara bisitatu egingo da eta ondoren, hamaiketakoa. 13:00etan, ganadu azterketa egingo dute, eta 14:30etan bazkaria. Bazkalostean, azkenik, txekorrek txuliatzeko aukera izango dute ausartenek. Ganbara kafetegian eman behar da izena. Prezioa, 6.000 pta.koa da.

Literatur lehiaketa

Udaleko Euskara batzordeak antolatu duen XII. Literatur Lehiaketara aurkezteko epea datorren astean amaituko da. Lehiaketan Bergaran bizi, jaio edo lan egiten duen edonork hartu dezake parte eta lanak edozein jenerotakoak izan daitezke; gaia librea izango da. Pertsona bakoitzak ezingo du lan bat baino gehiago aurkeztu eta lanak argitaratu barekoak izan behar dira.

Errioxara irteera

Jubilatuentzat Errioxara irteera antolatu da apirilaren 26rako. Irteera goizeko 9etan izango da Beheko Estazioan eta Biasteriko Ugarte bodegan hamaiketakoa egin eta gero, Haron bazkaria izango da. Menua: paella, oilaskoa, postrea eta kafea; prezioa, berriz, 2.600 pta. Interesa dutenek izena lehenbailehen eman beharko dute Jubilatuen egoitzan. Bestalde, jubilatuetako eskulan, yoga, pintura eta koru ikastaroak martxan daude berriro ere. Hiruhilabeteko kuota 2.400 pta.koa da.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

AZPEITXI

Aranerreaka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

BERGARAKO osasun gida

■ ALBAITARIAK:

- ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobila: 907 48 71 19
- ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)
- ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA)
- IRASTORZA BENGEO SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)
- NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47

Zurradero, 6 behea
Mobila: 908 77 17 32
Mobila: 908 77 17 32
Iribar baserria ANTZUOLA
Koldo Eleizalde, 28

☎ 76 70 67
☎ 76 43 29
☎ 76 43 29
☎ 76 63 46
☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA ISABEL

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN VICTOR

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL
- BERGARA HAGIN KLINIKA
- GOROSABEL J. ALBERTO
- IRIARTE IDOIA
- SUDUPE FELIPE
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.

Iparragirre, 1 behea
Bidekurutzeta 6, 2
Fraiskozuri, 5 behea
Artekale 1, 1. C
Matxiategi, 18 behea ezkerre
S. Arrieta 3, 2. B

☎ 76 27 95
☎ 76 05 77
☎ 76 56 88
☎ 76 01 65
☎ 76 07 66
☎ 76 38 54

■ FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)

Masterreka, 7 4. C

☎ 76 43 71

■ GINEKOLOGOA:

- SERRANO DOKTOREA

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

■ MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL JOSE JABIER
- AZPEITIA IRUNE
- CASANELLAS JABIER
- MARTINEZ LUIS JABIER
- PAYROS AITZIBER

Boni Laskurain 1, 2. A
Agorrosingo igerilekuak
Boni Laskurain 5, 2. E
Masterreka 7, 3. A
Bidekurutzeta, 46 behea

☎ 76 15 74
☎ 76 20 51
☎ 76 03 78
☎ 76 51 18
☎ 76 52 62

■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

- BENITO ISABEL

Bidekurutzeta 46, behea

☎ 76 52 62

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA

Boni Laskurain 2, behea

☎ 76 20 50

■ PEDAGOGOAK:

- IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)

Simon Arrieta 3, 2. E

☎ 76 26 42

■ PODOLOGOAK:

- ALTUBE EDURNE
- AZPIAZU ARANTZAZU

Simon Arrieta, 2
Herri Lagunak, z/g.

☎ 76 07 84
☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

- GALLASTEGI PABLO

San Martin Plaza 2, 1. ezkerre

☎ 76 26 64

■ PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)
- URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKA)
- ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKA)

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 14 80
☎ 76 53 13
☎ 76 30 76

■ REUMATOLOGIA:

- MORAGUES CARMEN

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

Osasuna

Fibra

- Non aurkitzen da fibra?

- Fibra landare zelule-tako pareta edo estalkian aurkitzen da, garian eta beste zerealetan, barazkietan, fruituetan, lekadunetan, fruitu lehorretan..., orokorrean fibra ez da liseritzen, baina fibren zenbait osagai fermentatu egiten dira gure liseri aparatuko zenbait bakteriarekin, haizeak eraginez. Betidanik entzun izan dugu fibra gorputzarentzat ona dela, barrutik garbitzen gaituela, etabar, baina gutxi dakite fibren eragina noraino den garrantzitsua, edo fibra moeta ezberdinak daudela.

- Zein fibra mota daude?

- Fibra zelulosa, lignina, pektinak, gomak..., bezalako polisakaridoez osatutako sustantzia talde bat da, landareetan esturktura funtzioa duelarik. Bi taldetan banatu daitezke: fibra solugarria eta fibra solugaitza, uretan disolbatzeko duten propietatearen arabera. Fibra solugarria uretan disolbagarriak diren poli-

sakaridoek osatzen dute, adibidez pektinak, gomak... Fibra mota hau lekadunetan eta zerealetan aurkitzen da batipat. Azukreen erabilera erregulatzen du (diabetesean garrantzitsua), odoleko kolesterol mailaren erregulazioan ere parte hartzen du (zirkulazio txarrarekin erlacionatutako gaixotasunetan lagunduz), hesteetan bakteriek fermentatu egiten dute haizeak sor-



BITTOR RODRIGUEZ
(Dietista)

tuz, hesteetako edukinaren bolumena haundituz eta horrela ebakuazioa errezutz.

- Eta fibra solugaitzaz, zer esan daiteke?


- Fibra solugaitza zelulosaz eta ligninaz osatua dago batipat eta zerealetan (estalkian batez ere), barazkietan, fruitetan

(azalean batik bat)... egoten da. Fibra mota honen eragina hesteetan ematen da batipat; ur asko xurgatzen du gorotzen bolumena haundituz, horrela hustutzea errezutz, baina fibra mota hau solugarria baino askoz konpaktoagoa eta gogorragoa denez, ultzeradun pertsonak kontu haundia eduki behar dute. Janaria gure liseri aparatutik azkarra go igarotzen da fibra honen ondorioz, horrela elikagaiak gutxiago aprobetxa daitezke. Hau ona izan daiteke hartu dugun janak gantz edota kolesterol asko badu.

- Nolako garrantzia dauka fibrak? Non aurki dezakegu?

- Dietaren fibra edukina haunditzea garrantzitsua da, gaur egun gero eta errefinatuagoak diren elikagaiak jaten bait dira, liseri aparatuko hainbat eta hainbat gaixotasun sortaraziz; idortasuna, berrizeak, hemorroideak, apendizitisak, harriak besikulan..., gaixotasun hauek eta beste asko fibra kontsumo egoki baten bidez eragotzi daitezke. Horretarako barazki, fruitu eta zerealen kontsumoa haunditzea aholkatzen da. Eguneroko dietaren barne egon behar harko lirake barazkiak (egosiak nahiz gordinak), lekadunak eta fruitu freskoak.

“Dietaren fibra edukina haunditzea garrantzitsua da gaur egun”



Barazkiak, lekadunak eta fruitu freskoak jatea gomendatzen da.

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15

☎ 76 25 03

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Zorionak denoi!

Lau elkartek mende laurdena

Bergarako Igeri Elkartek, Ipintza Institutuak, Jubilatuen elkartek eta Aranzadi Ikastolak beren sorreraren zilarrezko eztaiak betetzen dituzte egunotan. Lau elkarteek berebiziko garrantzia izan dute herriko bizitzan azken 25 urteotan eta orain, hori ospatzeko, hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

Aranzadi Ikastola 1971ko ekainean sortu zen, Komenio kaleko Koldo Eleizalde akademia, Bidekurutzetako San Martin de Agirre akademia eta Mizpildiko Santa Infancia ikastetxe elebiduna bat egitean. Dominikoek Seminarioko lokala laga zieten ikastola martxan jarri nahi zuten gurasoei eta haurreskolako zortzi gela eta OHoko beste 16 gelarekin hasi zen martxan ikastola.

Hasieran, 328 ikasle izan zituen ikastolak eta ordutik hona bertatik 3.205 ikasle pasa direla kalkulatu da. 1991/92 ikasturtean, Batxilergoko lehen taldea jarri zen martxan. Gaur egun, bi



Bergarako institututik herriko gazte ugari pasatu dira.

urtetik hasi eta UBira arte 875 ikasle dira Aranzadin.

Bazkari herrikoa

Aranzadi Ikastolaren 25. urteurrena iazko ekainean ospatu zen baina aurtengorako laga dira ospakizunak. Ikastolak programa zabala prestatu du. Besteak beste, martitzenean, 7etan, "Bergarako eskolako aintzinako kontuak" izenburuko ma-

hai-ingurua izango da UNEDeko aretoan; eguakitzean, hilak 18, "5P4" eta "La parranda mejicana" taldeekin kontzertua izango da Pol-Polen gaueko 11:30etan eta zapatuan, berriz, "Kakax, Kokox eta Kiriki" pailazoen emanaldia Frontoian. Apirilaren 25ean Benito Lertxundiren emanaldia izango da Frontoian eta apirilaren 27an ikastolarekin zerikusia

izan duten guztiekin (ikasle, irakasle, langile, etabar) bazkari herrikoa egingo da ikastolako kolumna patioan. Bazkarirako txartelak Kortazar, Pol-Pol, Ariznoa edo ikastolan bertan jaso daitezke 2.000 pezetaren truke. Ikastola sortu zuten lehen batzordeko partaideak ohorezko gonbidatuak izango dira egun horretan eta, era berean, omenaldi sospresa bat izango da.

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloi edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

AKORT
Publizitatea

San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

JAUJA KIROLAK

Irizar, 2
☎ 76 14 95

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

Egun horretarako Aranzadi Ikastolaren historiari buruzko liburua ere kalean izatea espero da.

Oskorri institutuarekin

Bergarako Batxilergo Institutua (oraingo Ipin-tza Institutua) 1972ko irailean inauguratu zen. Hasieran Eibarko Institutuaren menpeko zentru bat martxan jartzea pentsatu zen baina azkenean zentru independente modura hasi zen funtzionatzen. Institutuak bost kurtso eskeintzen zituen garai hartan: Batxilergoko 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a (ordu-

kultural berezia antolatu zen, Erramu Zapatuan irakasle ohiekin ekitaldi eta bazkari bat egin zen eta, herriari begira, Oskorriren kontzertua iragarri da maiatzaren 9rako. Bestalde, ikasle ohiei zuzendutako bazkari edo bilera bat antolatu nahi da irail alderako.


Errebista eta bazkaria Jam-en

1971ko uztailean Agorrosingo igerilekuak inauguratu ondoren, handik gutxira Bergarako Igeri Elkartea sortu zen, Bergara Kirol Elkartearen beste

le gehiago zituen eta, esate baterako, herri mailan udan jokatzeko txapelketan 300 gazte inguruk parte hartzea lortu zen. Asko izan dira elkartetik pasa diren igerilariak. Txapelketetan parte hartu izan duten igerilarietako dagokienez, 250 bat lagun izan dira gutxienez probintzia mailako txapelketaren batean izan direnak.

Ospakizunei dagokienez, bihar, zapatua, herri bazkaria izango da 14:30-etatik aurrera Jam aretuan; astelehenean, berriz, argazki erakusketa zabalduko da 7etan Kultur Etxean eta ondoren Igeri El-

esker, herriko jubilatuentzako lokala zabaldu zen. Horretarako premia nabaria zen orduan eta nahiz eta ordurarte jubilatuek elkarrekin biltzeko ohiturarik ez izan, oso erantzun ona jaso zuen Aitonetako lokala. Inaugurazio ekitaldian ere jende ugari bildu zen, 600 lagun inguru denera. Egun horretan karta txapelketak jokatu ziren eta honako hauek izan genituen irabazleak: Franzisko Kalbotxeaga eta Enrike Durana (tutean), Maria Iztueta eta Luzia Zezeaga (puntu txapelketan) eta Simon Elorza eta Gracian



Igerilekuetan jokatu diren igeriketa probetako bat, Kilometroak 91 Bergaran, eta Aitonak inauguratu zeneko eguna.

ko hezkuntza sistema aldatzera zihoan) eta, azkenik, UBI. 1972/73 ikasturtean 18 irakasle eta 469 ikasle ziren institutuan; gaur egun, berriz, 52 irakasle (horietatik 14 DBHn) eta 565 ikasle (horietatik 134 DBHn) ari dira Ipin-tzan ikasten. 25 urteotan, berriz, bertatik pasa diren ikasleak 3.552 izan dira.

Institutuak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu. Aste Santuaren aurretik aste

sekzio bat izatera pasatuz. Hainbat ikastaro antolatu ziren igerilariak aukeratu eta taldea osatzek; horrela, pixkanaka-pixkanaka, taldea sendotuz joan zen. Igeri Elkartek oso emaitza onak lortu ditu ordutik parte hartu izan duen txapelketetan eta 1980ko hamarkadaren hasieran Gipuzkoako talderik onena genuen Bergarakoa. Orduan igeriketak orain baino jarraitzai-

karteak 25. urteurrenerako argitaratutako aldizkariaren aurkezpena egingo da. Era berean, hilaren 19an eta 20an, Euskadiko taldekako txapelketa jokatu da Bergaran.

Aitonak: 25 urte

1972ko martxoaren 25ean inauguratu zen Aitonetako lokala, Seminarioan. Alkartu Naik bul-tzatutako herri ekimenari

Larrañaga (musean). Ordutik hainbat aldaketa eman dira jubilatuen funtzionamenduan. Orain, Boni Laskuraineko egoitzan (1976an inauguratu zena) San Joxepe elkarte eratu berri da eta 800 bazkide inguru dira bertan. Jubilatuek ez dute ekitaldi berezirik prestatu 25. urteurren honetarako. Udazken alderako, berriz, kultur aste bat prestatzen hasi dira dagoeneko.

LIZAR
ALTZARIAK
Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Siaska
Dena zure Inaurrarentzako
San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

Juanjo Arrieta


Aitonetako lokalaren sorreran berebiziko garrantzia izan zuen Alkartu Naik egindako lanak. 1972an, herriko elkarte eta hermandadeak (30 bat) biltzen zituen elkarterko presidentea Juanjo Arrieta genuen.

Nostaljia pitin batez gogoratzen du Juanjo Arrietak Alkartu Naik 1970eko hamarkadan bultzatutako ekimenak; "Alkartu Naik herrian, arlo sozialean behinik behin, hutsune bat zegoela ikusi zuen eta gure zeregina, nagusiki, arlo horretara bideratu genuen. Aitonetako lokalarekin hasi baino lehen, gorren eskolako ikasleentzat

aparailuak erosteko Seat 600 bat zozketatu genuen. 30.000 pezeta balio zuen kotxeak eta 60.000 pezeta batu genituen.

Herriarentzako anbulantzia bat ere lortu genuen, orduan eskualderako anbulantzia bakarra baitzegoen...".

Horrelako lanak eginaz, Alkartu Naik gero eta indar haundiagoa hartu zuen; "astero bilera pare bat egiten genituen eta elkarte guztietako ordezkariak biltzen ginen. Baina Udalak ez gintuen oso begi onez ikusten, azken batean Udalak berak egin beharko



lituzkeen proiektuak bultzatzen genituelako". Horrela, herriko jubilatuekiko lokal bat martxan jartzeko premia zegoela ikusi zuten Alkartu Naikok; "jubilatuen aldetik lokal baten eskaera zegoela ikusi genuen eta, dominikoeekin hitzegin ondoren, eurak prest

"Alkartu Naiko zeregina arlo sozialera bideratu zen orduan"

azaldu ziren Seminarioko lokala lagatzeko. Egin beharreko obrei aurre egiteko dirua biltzeari ekin genion; zozketak antolatu genituen, herriko enpresetara diru eske ere joan ginen eta langile bakoitzari hileroko 25 pezeta eta enpresei ere beste 25 pezeta eskatu genien. Herria oso ondo portatu zen eta herritarren diruari esker Aitonetako lokala jarri zen martxan. Lokala herritarren diruarekin mantentzea gehiegizkoa zenez, Madrilen Gizarte Segurantzako zuzendari zegoen atxabaltar batekin izan ginen eta lokal berria egin zenean beraiek hartu zuten lokalaren ardura. Horrelako ekimenak ilusio eta batasun haundiarekin ateratzen genituen aurrera".

Maria Victoria Arizmendi



Maria Victoria Arizmendi Aranzadi Ikastolaren sorreratik izan zen ikastolan lanean, orain dela zazpi urte jubilatuta arte. Aurretik, 1961.etik, Bidekurutzetako San Martin akademian klaseak ematen zituen.

Bergaran, euskarazko irakasle aitzindarietako bat izan genuen Maria Victoria. Berak gogoratzen duen moduan, "izugarriko ilusioa egin zidan Aranzadi Ikastola martxan jartzeak; niri beti gustatu izan zait denak batera lan egitea eta, indarrak batzean, ikastolak indar handia hartu zuen hasiera hartan. Jendeak ilusio haundiarekin ekin zion ikastolako proiektuari". Maria Victoriak matematika eta erlijio klaseak eman zizkien herriko hainbat belaunaldiri, nahiz eta bere hitzetan, "zenbakien artean gustorago egon. Nire azken urteetan, berriz, inork ez zuten erlijio klaseak eman nahi eta astero 24

ordu eman behar izaten nituen". Oso oroitzen onak ditu ikastolan lanean egon zeneko urteetatik; "atzera begiratuta ez daukat inolako penarik, eta berriz atzera egiteko aukera izanez gero, errepikatu egingo nuke orduko esperientzia, oso aberasgarria izan zen niretzat. Zelako irakaslea nintzen? Batzuentzat esijente samarra, azterketa asko egiten nituen eta... Gizonak ere zera esaten zidan orduan: *Zela zatoz ba hainbeste papelekin etxera?* Baina gustora egiten genuen lan. Hasieran, gainera, zelak gutxi ginen, lan asko egin behar izaten genuen eta

lanerako giroa oso ona zen". Gogor lan egin ondoren, kurtso amaieran ikasleekin batera egiten ziren bidaiek gogoan ditu oraindik Maria Victoriak, "zerbait ikusi badut, bidaia horiei esker izan da, benetan oso gustora ibiltzen ginen". Berak esaten duen moduan, perejil guztietako saltsa izan da beti eta ihauteriak ospatzen hasi zirenean zegoen giroa azpimarratzen du; "arratsalderik ederrenak haiek izaten ziren eta kalera irten beharra zegoela pentsatu genuen, primeran pasatzen genuen eta". Oraindik ere katekesi klaseak ematen ditu Maria Victoriak.

"Jendeak ilusio haundiarekin ekin zion ikastolako proiektuari"

Iñigo Gallastegi



Jesus Jauregi igerilekuetako monitorearen ustez, Iñigo Gallastegi izan da Bergara Igeri Elkarateak eman duen igerilaririk onena. Taldean eman zituen 15 urteetan Atlantikoa zeharkatzeko moduko distantzia beteko zuen Iñigok Agorrosingo igerilekuan.

Igeriketako lehen oroimena nahiko argi dauka Iñigok; "sei urterekin hasi nintzen igerian, orduan aita taldeko presidentea baitzen. Zazpi urterekin, nire lehendabiziko konpetizioan domina bat lortu nuen San Juan sarian, Arrasaten". Orditik eta 22 urterekin igeriketa laga zuen arte Iñigok hainbat garaipen lortu zituen: besteak beste, bizkar erako probetan Gipuzkoa eta Euskadiko txapeliduna izan zen, 17 urterekin bere adineko hirugarrena Madrilén jokaturako Espainiako txapelketan, 100 metro bizkarreko proban Gipuzkoako errekorra izan zuen hiru urtez, etabar. Berari, Madrilén lortutako

dominak egiten dio ilusio gehien. Baina gogor entrenatu behar izan zuen. Garai hartan goizeko 6etan joaten zen Agorrosinera; "giltza neukan eta institutura joan baino lehen pare bat ordu ematen nituen gimnasioan eta igerian bakarrik. Eta klasetik irtendakoan, 3ak aldera, beste bi ordu ematen nituen igerian. Alde horretatik oso gogorra da igeriketa. Eta bakarrik entrenatuz gero, oraindik gehiago". Esan bezala, 22 urterekin laga zuen igeriketa Iñigok. "Oñatin 3 urtez izan nintzen ikasten eta handik Bilbora joandakoan ezinezkoa

zitzaidan igeriketarekin jarraitzea. Uztea erabaki nuen. Entrenatzeko ez nuen lehen neukan ilusioa eta waterpolo egiten hasi nintzen, lasaiago, igeriketa erabat ez lagatzearren. Baina hura ere amaitu zen eta orain ez dut ezer egiten. Dena dela, badaukagu waterpolo taldea berriz ateratzeko asmoa. Ea datorren urtean zerbait egiten dugun...". Igeriketari esker lagun asko egin ei ditu Iñigok eta hori da geratu zaion gauzarik onenetakoa. Gaur egungo igeri taldeari buruz zera esan digu: "Ilistoia nahiko altu laga genuen, baina badaude oso maila oneko pare bat gazte...".

"Sei urterekin hasi eta 22 urterekin laga nuen igeriketa"


Miguel Angel Alvarez

Kontxi Korkostegirekin batera, Ipintza Institutuko irakaslerik beterranoena dugu Miguel Angel Alvarez. Miguel Angel 1981/82 ikasturtean hasi zen bertan lanean eta, beraz, institutuak jasandako aldaketan testigu izan da.

Miguel Angelen ustetan institutuak erabateko aldaketa jasan du azken 25 urteotan; "75ean ikasketa plangintza berria jarri zen martxan, 82an institutuaren edifizioa bera haunditzeko lanak egin ziren (ordu beharrei egokitu ahal izateko) eta joan zen ikasturtean beste plangintza bat ezarri zitzaigun, LOGSE edo

HSAOL delakoa. Etengabeko berrikuntza prozesu batean murgilduta gaude. Euskalduntze prozesua ere nabarmena izan da: hasieran klase guztiak erdaraz ematen baziren ere, orain ikasleen %90ak dena euskaraz ematen du". Miguel Angelek berak ere klaseak euskaraz ematen hasi zeneko estuasunak gogoan ditu, "nahiko gogorra izan zen niretzat klaseak euskaraz ematen hastea". Arte, Historia eta Geografiako klaseak eman izan ditu beti. Bere hitzetan, kasualidadez

heldu zen institutura; "Leonen ari nintzen lanean eta andreak hemen eskuratu zuen plaza. Hurrengo urtean neu etorri nintzen. Eta bertan jarraitzen dut...". Lan egiteko metodoak ere aldaketa ugari jaso ditu; "hasieran ez zegoen barme funtzionamendurako araurik, ezta legediarik ere, eta lan inportantea egin zen zentzu horretan". Ikasleei buruz zera esaten digu; "beti komentatzen da lehengoak formalagoak zirela, baina antzera samar... Baina, orokorrean, kanpoko irakasleen arabera, hemengo ikasleak beste herri batzuetakoekin konparatuz, hobeak ziren".



Zerbait destakatzekotan, institutuko ikasle eta irakasleen arteko giroa aipatzen du Miguel Angelek. Etorkizunera begira, ikastetxeak izango dituen aldaketak: "Bi urte barru HSAOL edo LOGSE guztia martxan izango da, Miguel Altunarekin martxan dagoen fusioa burutuko da eta, beraz, aldaketa mordo bat etorriko da".

"Ikasle eta irakasleen arteko giroa nabarmenduko nuke"

Zein da zuretzat garraiobiderik seguruena? Zein duzu gustokoen?



Mari Verjano

Norberaren kotxea beharbada, hori bai, kontuz joanda... Abioian ez naiz sekula ibili eta ez dakit nolakoa izango den...




Emilio Aguayo

Trena. Arriskutsuak guztiak dira baina trenak segurtasun handia ematen dit. Hori bai, abioia azkarragoa da.



Nuria Santamaria

Trena. Istripuak izaten dira baina nire ustez seguruena da. Arriskutsuena? Kotxea beharbada nahiz eta besteetan istripuak espektakularragoak izan.




Iñaki Tabares

Autobusa. Ni gehienetan kotxean ibiltzen naiz baina seguruena autobusa da. Arriskutsuena? Trena igual...



Maria Jesus Ferreiro

Trena da seguruena eta arriskutsuena, berriz, kotxea. Gehien kotxea erabiltzen dut. Baina gehien abioa gustatzen zait.



Olegario Adan

Gaur egun nekeza da hori jakitea. Hala ere, seguruena trena dela esango nuke. Arriskutsuenak? Pisu gutxiko kotxe txikiak.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Kizkur

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



Noraino?

Otsail bukaeran Ian Wilmut eta bere talde lagunek "Dolly" eman zuten ezagutzera. Ardia, zientziatik sorturiko lehen fotokopia genetikoa genuen, beste ardi baten berdina. Ordutik aurrera hitzegiteko asko eman ditu ardiak. Iritziak ugari dira; batzuentzat lorpen handia izan da eta onura izugarria ekarriko du zientziaren arloan, posible izango baita elikadura sektoreetan aldaketak sortaraztea, hainbat gaixotasun sendatzea edo askotan gizakiak falta ditugun gorputz atalak animaliangandik eskuratzea. Beste askok aldiz naturaren aurkako aberrazioaren aurrean gaudela diote. Iritziak ezberdinak badira ere, gehiengoaren ustetan izakietan ematen dena gizakietan praktikara eramatea gauza pentsaezina izan beharko litzateke.

Baina gizaki klonikoak sortzearen ideia ez da gauza berria; honi buruzko ideiak hor ditugu zenbait eleberri, filme zein historiako pasarteetan. Gaur egun ideia guzti horiek errealitate bihur daitezke, teknikoki behintzat posible baita laborategietan gizaki klonikoak sortzea.

Gizaki klonikoen arazo honen aurrean legeak, bere prestigioa mantentzeko asmoz hort dabil bazterrak mugitzen gai honi buruzko arauak finkatu ahal izateko behintzat honi buruzko araurik ez dagoen zenbait herrialdetan. Baina denok dakigunez legea ez da oztopo izaten korrupzioaren aurrean, beraz azalean ez bada ere gizaki klonikoak sortzeko asmo hau aurrera eramatea ez litzateke zientzia fikzioa izango. Ez al da zientzilarien burmuin horietatik pasako berezko Frankenstein bat sortzeko nahia edo beharra?

Elena FERNANDEZ



Iskanbila ederra!

Asteartean klasean sartu bezain laister, euskaraz ikasten ari den ikasle bat hurbildu eta irrifarre maltzurrez, "Honek bai arrazoia honek" esan zidan. Harrituta begiratu nion, eta berak berehala, goizean goiz erosi berria zuen "El Mundo" egunkaria luzatu zidan. "Irakurri, irakurri!" animatu ninduen.

Albiste honetan Gabriel Garcia Marquez, Camilo Jose Cela eta Octavio Paz idazleek eginiko adierazpenak agertzen ziren. Adierazpen hauek Mexikoko Zacatecas herrian eginiko biltzar batean jasotakoak ziren.

Bertan, Camilo Jose Celak hizkuntzaren askatasuna aldarrikatu zuen. Bere esanetan, hizkuntzari mugak jartzea eta aldi berean hizkuntza zorrotzegi arautzea ez da bidezkoa, hizkuntzak berak bere bidea jarraitzen baitu.

Gabriel Garcia Marquez ere ez zen bestearen itzalean geratu eta "Cien de años de soledad" liburuaren egileak ironiaz betetako hitzak esan zituen. Batetik, gramatika baztertzea eskatu zuen eta bestetik, ditzosozko ortografia behin betirako lurperatzea.

H-aren erabilpena eta espainolek Ameriketara eramandako B eta V letren desagertzea eskatu zuen, bietako bat sobran omen dago eta.

Hau irakurri eta gero, ikasleari egunkaria itzuli nion. Berak, lehenagoko tonuari eutsiz, bi gauza galdetu zizkidan: lehenengoa, ea Euskaltzaindiari artikulua kopia bat bidaliko genion eta bigarrena, ea egun horretan egin beharreko idazlanean H-rik jarri behar al zen.

Josune IÑARRA

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79



BERGARA

Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

■ **Euskaltegitik sagardotegira**

Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleek sagardotegira irteera egin zuten opor aurretik. Urtero joateko ohitura daukate eta oraingoan ere ez diote txotxetik edateko aukerari uko egin. Aurten



Tolosako Isastegi sagardotegian izan dira eta 100 bat lagun elkartu dira, trikitilari eta guzti. Nahikoa jan eta edan ondoren, ordu txikietan etxera itzuli ziren, baina hori bai, bada ez bada autobusean...



■ **Pianojole diplomatuak**


Ainhoa Unzurrunzaga eta Ainhoa Ernabide bergararrek parte hartu zuten Donostian izandako “**Nazioarteko IV. Donostia Hiria Piano Lehiaketan**”. Bertan, estatu zein atzerriko **100 bat pianojolek** hartu zuten parte maila ezberdinetan. Ainhoa Unzurrunzagak eta Ainhoa Ernabidek diploma bana eskuratu zuten Donostian eta oso pozik itzuli ziren lortutako emaitzogatik. Biek ere 14 urte dituzte eta pianoko 6. maila ari dira ikasten Musika Eskolan, Eli Mendiaraz irakaslearen eskutik. Mendiarazek ere oso

positibotzat jo du Donostiako espereintzia eta musikako ikasle guztiak horrelako lehiaketetan parte hartzeko animatu nahi ditu. Ea ba!

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29


MUJIKA GOZOTEGIA
Berezitasunak:
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK
Artekale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77



**FAUSTINO DE ZERIO,
BIURKO**
(1913-1982)


■ **Tio Faustinori buruz**

Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak argitaratzen duen **“Bidegileak”** bildumaren barruan, 7. alean, **Xabier De Zerio**, Bargotan jaio eta Bergaran bizi den irakasle eta eskultoreak **Faustino De Zerio “Biuurko”** naparrari buruzko liburuska idatzi du. “Bidegileak” izeneko bildumak, euskararen alde egindako lanagatik nabarmendu direnei buruzko biografiak jasotzen ditu. Besteak beste, Manuel Larramendi, Manuel Lekuona, Antonio Mogel, Koldo Mitxelena edota Xalbadorri buruzko liburuskak argitaratu dira orain arte. Zazpigarren zenbakian, Faustino De Zerionarekin batera, **Pedro Diez de Ulzurrun, Andoni Urrestarazu “Umandi” eta Odon Apraizen** liburuskak datoz. Xabier De Zerio, Faustino De Zerio (1913-1982) bere osaba izan zenari buruz idatzi du. Bargotan (Nafarroa) jaioa, gaztelera nagusi zen eskualde



PEDRO DIEZ DE ULZURRUN
FAUSTINO DE ZERIO, BIURKO
ANDONI URRESTARAZU, UMANDI
ODON APRAZ


horretan euskal hiztun bakarretakoa izan genuen Faustino apaiza. Logroñoko seminariotik, Juan del Biurko edo Biurko ezizenarekin, Euskal Herriko hainbat aldizkaritan euskarazko kolaborazioak argitaratu zituen, hala nola *Zeruko Argia, Goiz Argi, Arantzazu, Euzkadi* edo *Principe de Viana* erreibistetan. Humanista handia, azken urteak gaisorik eman zituen eta 82an hil zen. Bildumako ale bakoitza 800 pezetan eskuratu ahal izango da eta ikastetxeetan ere banatuko da, ikasleek kontsultatzeko aukera izan dezaten.



Zertan dihardute ba?



Maite Aristegi, 34 urteko abokatu bergararra, EHNE Euskal Herriko Nekazarien Elkarteko idazkari orokorra izendatzekoa zen gaur, ostirala, nekazarien elkarteak Gasteizen egin behar zuen kongresoan. UNEDen Zuzenbide ikasketetan lizentziatua, Maite Aristegik abokatu lanak bete ditu EHNE hainbat urtetan eta orain nekazarien elkarteko buru izateko aukeratu dute. Maite Aristegi Herri Batasunako zerrendaburua izan zen 1995eko maiatzeko udal hauteskundeetan. Orduetik zinegotzi lanetan jardun du Udalean.



**Miguel
Gimbert
Hernan**

ARROZTEGIA / EBANISTERIA

Zokalo, ate, tarima eta armairuen kolokazioa eta era guztietako arotzeria-lanak

Orain ARETXABALETAN, Basabe Polig. A-2-5 T/F 79 15 71

ZUBIETA
elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTETAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfn: 76 55 02 Fax: 77 11 30

Elias Ortego

Hospitalet de Llobregat-ekoa izatez, Elias Ortego 5 urte daramatza gure artean ONCEko boletoak saltzen. Aurretik hainbat urte eman zituen Barakaldon lanean, loteria saltzaile. San Antonioko semaforoan, cuponazoa saltzeko irrikan dago. Atzo bertan 63 urte bete zituen.

- Zenbat boleto saltzen dituzu egunean?
- Hori ezin da esan...
- Zein egunetan saltzen da gehien?
- Eguakizetan, duda barik.
- Eguneroko erosle asko dituzu?
- Dexente, bai.
- Nolako erosleak dituzu?
- Garraiolariak asko erosten didate eta tabernetan ere errez saltzen dut.
- Lanerako zein ordutegi daukazu?
- 9etan hasi eta arratsaldeko 7ak arte.
- Zenbat ordu egiten duzu lo?
- Zazpi bat.
- Lanerako sasoirik onena?
- Negua, hotza; beroarekin ikaragarri sufritzen dut eta.
- Superstiziosoa zara?
- Ez, ez dut gauza horietan sinisten.



“Garraiolariak eta tabernetan erosten dute gehien. Kupoian eta loterian jokatzeko ez naiz batere superstiziosoa. Barçaren jarraitzailea naiz”

- Zure zenbaki faborioa?
- 34a.
- “Telecupon” saioa ikusten duzu?
- Egutero, informatuta egon behar...
- Carmen Sevilla botatzen duzu faltan?
- Ke ba!! Berba gehiegi egiten zuen.
- Kinielarik egiten duzu?
- Ez, kupoian eta loterian jokatzeko bakarrik.
- Eta 100 milioi irabazita, zer egingo zenuke?
- Hospitaletera bueltatu.
- Jai daukazunean zer egiten duzu?
- Pasiatzea gustatzen zait.
- Janari bat?
- Txuleta on bat.
- Futbol talde bat?
- Barça.
- Cruyff ala Robson?
- Berdin zait.
- Ronaldok alde egingo du?
- Hori badoa... katalanak peseteroak dira eta.
- Real eta Athletic sartuko al dira UEFAn ?
- Ez bata eta ez bestea.
- Irrati programa bat?
- “Carrusel deportivo”.
- Ziklismoan, ONCE ala Banesto?
- Once...
- Nork irabaziko du Euskadiko Itzulia?
- Zullek.

IKASTARO INTENTSIBOAK

INGELES FRANTSESA ALEMANA

Apirilaren 21etik ekainaren 21era.

- BI HILABETEKO IRAUPENA.
- EGUTERO BI EDO BI ORDU T'ERDI.
- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.

**HONEZ GAIN BESTE
HAINBAT IKASTARO**



INFORMAZIOA:

Bergarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87

MATRIKULA ZABALIK!!

ETXEBIZITZA

Antzuolan pisua eta gara-
jea salgai. ☎ 76 62 15.

Arrasaten karabanenda-
ko lokalak alokairuan.
☎ 76 38 26.

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 54 98.

Garajea salgai edo alokai-
ruan Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

Pisua salgai Donostian,
Amaran. ☎ 76 31 79.

Atiko amueblatua salgai.
☎ 76 47 27.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 18 46.

Pisua alokairuan hartuko
nuke. ☎ 76 57 55.

Pisu amueblatua salgai
Mugertza kalean, 3. zenba-
kian. ☎ 76 53 79.

Pisua alokairuan Santo
Domingo de la Calzadan,
udan. ☎ 76 13 12.

Pisua salgai herri-erdian.
☎ 76 25 31.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 42 65 (gauz).

Pisua salgai Barrenkalen.
☎ 76 41 38.

Garajea alokatzen da
Ibargarain. ☎ 76 16 38.

Garajeak salgai Torrekuan
eta Espaloian. ☎ 76 33 88.

Pisua salgai Zarautzen.
☎ 76 53 69/13 34 67.

DENETARIK

Imar karro-denda salgai.
☎ 76 59 56 (gauz).

Aulki ergonomikoa salgai.
5.000 pezeta. ☎ 76 08 92.

Bilbon pisua osatzeko bi
lagun behar dira.
☎ (94) 416 77 77 (Eli).

Pyrenaica aldizkariaren
ale zaharrak lortu nahi
ditut. ☎ 88 90 53 (Andoni).

Nintendo kotsola bat
salgai. 2 mando, 100 joku.
☎ 76 38 71 (Igor).

Bikientzako ume
kotxeak eta saskiak salgai.
☎ 76 06 04.

Opel Kadett kotxea (SS-
X) salgai. Prezio interesga-
rria. ☎ 79 74 10.

Korredore bizikleta sal-
gai. ☎ 76 38 74.

Lada Niva kotxea salgai.
Egoera onean. ☎ 76 02 31.

Graduatutako betaurre-
koak galdu ditut. ☎ 76 16 38.

Txirindulari bizikleta sal-
gai. ☎ 76 50 22 (Karlos).

Akuariuma salgai. Egoe-
ra onean. ☎ 76 33 48.

Logelako altzari berriak
salgai. ☎ 76 59 84.

Opel Ascona 1.600 GLS
kotxea salgai. SS-V, 86 mi-
la kilometro. ☎ 76 57 55.

Mendiko bizikleta (nes-
kena) salgai. ☎ 76 46 90.

LANA

Mate, fisika eta kimika kla-
seak. ☎ 76 70 40.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Lanak ordenadorez pasa-
tzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

Andrea eskeintzen da su-
kaldari, garbiketa edo ume-
zain lanetarako. ☎ 76 70 85.

Mate, fisika eta kimika
klaseak. ☎ 76 44 34.

Etxeko lanak egiteko nes-
ka behar da. ☎ 76 91 30.

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen di-
tut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika
klaseak. ☎ 76 24 31.

Zaharrak zaindu edo
etxeko lanak egingo nituz-
ke orduka. ☎ 76 04 57.

Batxilergo teknologikoko
(lehen maila) elektronika ira-
kaslea behar da. ☎ 76 39 15.

Neska euskalduna
naiz eta haurrak zaindu eta
etxeko lanak egingo nituz-
ke. ☎ 76 70 90.

Haurrak zaindu eta etxe-
ko lanak egiteko neska bat
behar da. ☎ 76 05 80.

Tabernari lana egingo
lukeen neska bat naiz.
☎ 76 04 57.

Etxeko lanak egin edo
haurrak zainduko nituzke.
Esperientzia. ☎ 76 70 15
(Betatik aurrera).

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatu eta
barnizaketa •

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27



**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**GOROSTI
Taberna**

☎ 76 62 96

Zurrategi Plaza ANTZUOLA

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



Aritz Balda

Aritz Baldak jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkietan agertzen ziren iturriak non zeuden galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Aranerreka kalea eta San Martzialeko bidean** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Aritz Baldari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da aurki berriztuta geratuko den baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara


1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A Ze FLAXA ETXAGI	50	19	97	34
2. ERROTAGAIN	43	18	80	31
3. JAUJA OH ZEREZOS	36	18	68	46
4. BAR CANALEJAS	35	18	64	50
5. BILBURBAREK OPEL/LAM	23	18	69	67
6. ORTZI	21	18	43	58
7. AZPEITXI JATETXEA	20	18	60	60
8. OGIZUN	19	18	46	72
9. ARLOTEAK/OILAGORRA	17	18	63	45
10. PAGOMENDI	17	18	42	62
11. MADURA INDUSTRIAS GOI	17	18	46	77
12. MONGATXURRA	14	17	43	69
13. UFALA	11	17	39	54

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ETXAGI	33	17	62	56
2. KAYAK OS JARDINEIROS	32	18	77	48
3. ARTUSAMAK BERGATRANS	30	18	63	46
4. HALTZARI	29	19	55	44
5. AGIÑASPI	27	19	55	59
6. LA JUVE	27	19	70	49
7. EZINLEIKE	25	19	58	63
8. ERI	23	18	54	74
9. SOROPOTROAK	22	17	43	41
10. AGIRREBEÑA JATETXEA	21	17	54	52
11. AUTOBEREZI	19	18	67	88
12. INDARGORRI	17	18	44	98
13. UVE BIKOITZA JAM	0	0	0	0

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	45	19	82	36
2. FAC	43	19	90	44
3. PJS	35	19	74	47
4. NEKROFIKOS	33	18	69	64
5. TXIPIRON	32	18	60	41
6. JAKINA PATXARAN TEAM	30	20	79	60
7. NAHIKARI HOOLIGANS	27	20	64	59
8. MOSKIS	21	17	55	33
9. IGANDEKOAK	18	18	40	68
10. EH BITERRAK	16	17	40	58
11. GANBARA	13	18	58	73
12. MRW	11	18	58	67
13. CONSTRUCCIONES BERGARA	11	18	39	101

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	54	18	136	23
2. ARBE KIROLAK	47	20	117	44
3. ETENGABE	38	19	59	41
4. SLO	34	18	80	26
5. MATXAKATEGI	29	18	67	39
6. KOMANDO PIPERRAK	25	20	64	90
7. XURRUPAK	24	17	37	68
8. AMILOTX	19	19	41	65
9. PANORAMIX	17	18	65	66
10. PATA NEGRA	15	18	38	117
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	13	18	42	101
12. ALDOKA MALDOKA	9	19	40	67
13. OSINTXU	0	0	0	0
14. PITTIXAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Jose Angel Moraza
AMILOTX

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Ondo doala uste dut. Halere partidu gehiegi galtzen ari gara; baina bestela ondo gabilta.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA?

Gehinetan ondo konpontzen garela eta txarrena, gol gutxi sartzen ditugula.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa.

JOKALARIRIK ONENA?

Juan Luis Etxaniz.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK

HANDIENA?

6 eta 3 ez dakit nori.

ETA JASOTAKO A?

18 eta 1 Guadelest taldeak.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Erdialdean, baina horrela jarraitzen badugu ez dakit postu horietan bukatuko dugun.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Azkenaldian modan dagoen Abreu futbolari argentinarra.

EUSKAL HERRIKO A?

Indurain.

JATEKO PLATER BAT?

Danetik gustatzen zait, baina zerbait aukeratzekotan bildotsa aukeratu nuke.

EMAITZAK

ARBE KIROLAK-AMILOTX	1-2
KOMANDO PIPERRAK-ETENGABE	2-4
PATXARAN TEAM-FAC	3-5
NAHIKARI HOOLIGANS-NEKROFIKOS	2-5
MONGATXURRA-JAUJA OH ZEREZOS	1-10
AUTOBEREZI-ERI	23-1
SOROPOTROAK-AGIRREBEÑA JATETXEA	SUSPENDITUA
AGIÑASPI-LA JUVE	4-3
EZINLEIKE-HALTZARI	3-1
PAGOMENDI-A ZE FLAXA ETXAGI	2-7
OGIZUN-BAR CANALEJAS	3-4
MONGATXURRA-AZPEITXI JATETXEA	2-4
ARLOTEAK-MADURA INDUSTRIAS GOI	2-3
JAUJA OH ZEREZOS-UFALA	4-6
BILBURBAREK OPEL/LAM-ORTZI	1-5
CONSTRUCCIONES BERGARA-TXIPIRON	4-9
KOMANDO PIPERRAK-ALDOKA MALDOKA	3-2
SLO-PATA NEGRA	15-0
PANORAMIX-MATXAKATEGI	0-5
ARBE KIROLAK-POLIDEPORTIVO	16-3
MANITOU-XURRUPAK	9-0
IGANDEKOAK-MRW	2-1
GUADALEST-PJS	4-1

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: MATXAKATEGI-AMILOTX • NEKROFIKOS
10:00: PATXARAN TEAM-NEKROFIKOS • MATXAKATEGI
11:00: NAHIKARI HOOLIGANS-PJS • PATXARAN TEAM
12:00: POLIDEPORTIVO-PATA NEGRA • ERROTAGAIN
13:00: JAUJA OH ZEREZOS-ERROTAGAIN • POLIDEPORTIVO
18:30: IGANDEKOAK-GUADALEST • PANORAMIX
19:30: PANORAMIX-XURRUPAK • IGANDEKOAK
20:30: SLO-MANITOU • XURRUPAK

Zapatuan kanpoan

11:00: ORTZI-MADURA INDUSTRIAS GOI • ARLOTEAK
12:00: ARLOTEAK-AZPEITXI JATETXEA • MADURA
13:00: MONGATXURRA-BAR CANALEJAS • AZPEITXI
16:00: BILBURBAREK OPEL/LAM-UFALA • ARTUSAMAK
17:00: KAYAK OS JARDINEIROS-ARTUSAMAK • UFALA
18:00: EH BITERRAK-MOSKIS • KAYAK OS JARDINEIROS

Domekan barruan

09:00: GANBARA-TXIPIRON • SLO
10:00: SLO-XURRUPAK • TXIPIRON
11:00: PANORAMIX-PATA NEGRA • XURRUPAK
19:00: CONSTRUCCIONES BERGARA-MOSKIS • MRW
20:00: EH BITERRAK-MRW • MOSKIS

Domekan kanpoan

09:00: AUTOBEREZI-AGIRREBEÑA • BILBURBAREK OPEL LAM
10:00: BILBURBAREK OPEL/LAM-ERROTAGAIN • PAGOMENDI
11:00: OGIZUN-PAGOMENDI • ERROTAGAIN
16:00: JAUJA OH ZEREZOS-A ZE FLAXA E. • INDARGORRI
17:00: INDARGORRI-ETXAGI • JAUJA OH ZEREZOS
18:00: SOROPOTROAK-AGIÑASPI • ETXAGI
19:00: EZINLEIKE-ARTUSAMAK • AGIÑASPI

TXINPARTAK

Frontenis txapelketa

Deba Garaiko kirol zerbitzuek antolatu duten binakako frontenis txapelketan izena emateko epea astelehenean bukatuko da. Partiduak asteburuetan jokatu dira eta Kirol Zerbitzuko bazkideek 1.000 pta. ordaindu behar dute; gainontzekoek, berriz, 1.500 pta. Astelehenean Arrasateko Monterron jauregian bilera izango da 19:00etan zozketa egiteko.

Pilotariak finalera

BKEko senior eta kadete mailako pilotariak Deba arroko finala jokatzeko sailkatu dira. Senior mailan Muruamendiaraz eta Idiakezek osatu dute bikotea eta kadeteetan Redondo eta Muguruza aritu dira.

Ion Lazkano eta Iñurrategi anaiak Mendi Astean, hilaren 20tik aurrera

Jardun elkarteak, Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Udal Kirol Zerbitzuak Mendi Astea antolatu dute apirilaren 20tik 25era bitartean.

Apirilaren 20an, igandean, argazki rallya izango da goizeko 8:30etan Pol-Pol elkartetik irtenda. Ordu berean Beheko Estazioetik Adarra mendira irteera izango da. Astelehenean, berriz, arratsaldeko 7:30etan Roman Laskurain eta Iker Etxeberriak "Muztagata-Txina" diapositiba emanaldia eskeiniko dute Miguel Altuna zaharrean. Emanaldian bi mendizale bergarrek joan zen udan egin zuten mendi txangolari buruzko azalpenak emango dituzte.

Asteartean, Susi Elosegik "India-Kachemirakhun" emanaldia eskainiko du eta asteazkenean Felipe Uriartek "Pamirreko bihotzean" diapositiba emanaldia, biak UNEDen iluntzeko 7:30etan. Ostegunean, berriz, Iñurrategi anaiek "Sisha Pangma"



Mendiko diapositiba ugari ikusteko aukera izango da.

emanaldia eskainiko dute arratsaldeko 7:30etan UNEDen edo Novedades aretoan. Ostiralean, Jon Lazkanok "Amin Brak" emanaldia eskainiko du arratsaldeko 7:30etan UNEDen. Halaber, argazki rallyko lehiaketaren sari banaketa egingo da. Lazkanok egunean zehar herriko ikastetxeetan espedizioetan hartu dituen irudiak erakutsiko ditu.

Horretaz gain, men-

diari buruz zerbait gehiago jakin nahi dutenek aukera izango dute Lazkanorekin. Izan ere, datorren hilean Lazkano Bizkaiko espedizio batekin Pakistanen dagoen Gasherbrun IV mendia igotzen saiatuko da. Mendiarri 75 metro falta zaizkio 8.000 metro izateko, baina euskaldunek erabiliko duten bidetik, hego gailurretik, bi espedizioak bakarrik lortu dute igotzea.

AITZIBER ARETXAGA



Errekorra etra jende ugari Txakur Leren lasterketan

Goio Del Real madrildarrak irabazi zuen Gorlako txakur leren txapelketa. Bigarren Robi Ferrero sailkatu zen eta 3. Oscar Espinosa. Axen Garitano, berriz, 10 lehenengoen artean sailkatu zen. Gainera, aurten lasterketaren errekor berria jarri du Del Realek, 34 minutu eta 11 segunduko denbora egin baitzuen 9 kilometroko zirkuitoan. Antolatzaileak pozik agertu dira jendeak emandako erantzunarekin eta dagoeneko hasi dira datorren urteko probaren antolakuntza pentsatzen.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Aloña Mendi

Ohorezko liga jubenilak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

◆ Bergara-Eibar

1. mailako kadeteak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.

◆ Bergara-Baskonia

2. mailako erregionele.
Domeka. 17:00. Ipintza.

◆ Bergara-Arrasate

Ohorezko mailako kadeteak.
Domeka. 11:30. Ipintza.

SASKIBALOA

◆ Ibili Bergara-Santo Tomas

Senior mutilak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

◆ Bergara-Eskoriatza

Senior neskek.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

◆ Bergara-Urbina Maltzaga

Junior mutilak.
Domeka. 12:15. Kiroldegia.

NESKEN 3.FUTBITO

TXAPELKETA

◆ PWA-LTB

Domeka. 13:00.
Migel Altuna Institutua.

◆ Power-The Hurricanes

Domeka. 16:00.
Migel Altuna Institutua.

◆ Potzu-Nahikari TK

Domeka. 16:00.
Migel Altuna Institutua.

◆ Blue Star-Burdinezko

Domeka. 17:00.
Migel Altuna Institutua.

Aritz Linazisoro

Mendiko bizikleten jeitsieran

Mendiko bizikleten jeitsierako Euskadiko Openaren proba bat jokatuko da zapatuan arratsaldeko 4retan Uberan. Euskadiko eta estatuko txirrindulari onenatarikoak izango dira bertan; horien artean, Gaizka de Miguel, Iban Rodriguez, Jose Gutierrez eta Aritz Linazisoro bergararrak. Azken honekin izan gara.

- Ze ezaugarri ditu Uberako zirkuitoak?

- Orokorrean oso azkarra da eta 200 metro nahiko teknikoak ditu. 3 kilometro inguruko zirkuitoa da eta arriskutsua da, batez ere bustita da goenean. Azkonabietatik irtengo dugu eta Uberaraino jeitsiko gara. Bizikleta ona dutenek aurrean bukatuko dute; lehengo 5 sailkatuek alde handiak aterako dituzte. Abiadura handiak hartu daitezke eta uste dut 70 kilometro orduko abiadura hartu dezakegula.

- Zer moduz aurten?

- Nahiko ondo nabil, serio hartu dut eta laguntzak ere jaso ditut. Benetton eta Kastle etxeek konfidantza osoa eman didate eta material guztia ordaintzen didate. Andorran eta Asturiasen aritu naiz eta bihurtik aurrera Euskadiko Openean hasiko naiz. Guztira 8 lasterketa izango dira eta Espainiako txapelketan ere arituko naiz.

- Elurretako jeitsierak ere egiten dituzu. Desberdintasunik?

- Izotzik ez baldin badago errezagoa da. Lokatzetan ibiltzea zailagoa; gainera, elurretan eroriz gero, min gutxiago hartzen da.

- Zeintzuk dira jeitsierako bizikletaren ezaugarriak?

- Ohizko mendiko bizikletarekin konparatuz desberdintasun batzuk baditu. Txasisa oso agresiboa da eta errefortzu asko ditu toki ahulenetan. Manilerrak motokroseko motorrenen antzerakoak dira, suspentsioak errekorrido luzekoak dira eta frenoak diskokoak. Oso bizikleta garestiak dira eta aurrean ibiltzeko bizikleta batek 600 mila pe-

zetatik gora balio du.

- Ze helbururekin zabilta bizikleta jeitsieren munduan?

- Hobby moduan hartzen dut, badakit eta ez naizela kirol honetatik biziklo. Halere, ahal dudan ondoen ibiltzen saiatuko naiz neure buruarekin gustora egoteko. Gainera lasterketetan lagun asko egiten dira eta oso giro ona dago.

- Biharko lasterketarako faboritoak?

- Juan Antonio Arrinda, Manolo Osuna, Roberto Nuñez eta Jose Gutierrez. Besteren bat aurrean izango da. Ni neu, aurreko multzoan sailkatzten saiatuko naiz.



Kirol arriskutsu eta ikusgarria egiten du Aritzek.

“Uberako zirkuitua oso azkarra da eta alde handiak izango dira”



Argazkia: Aranzadi Ikastola

Aranzadi Ikastolako lehen promozioa

Aranzadi Ikastolak bere sorreraren 25. urteurreneko ospakizunak iragarri ditu eta, ikastolako lehen promozioetako talde baten argazkia ekarri dugu aste honetan. Argazkia orain 23 urte inguru aterata dago Ezkurran, Nafarroan. Ikasleek, urte hartako Aste Santuan, *kombibentziak* egin zituzten Ezkurran eta, bien bitartean, inguruko mendiak ezagutzeko aukera izan zuten. Argazkian kurtsu ezberdinetako ikasleak ageri dira.

Aranzadi Ikastolan ibilitakoek ikasle garaiko kontuak gogoratzeko aukera izango dute, apirilaren 14tik 27ra bitartean ikusgai izango den argazki erakusketan. Era berean, apirilaren 27an herri bazkaria egingo da ikastolako kolumna patioan, ikastolarekin zerikusia izan duten guztiak gonbidatuta daudelarik. Ea ba jendea animatzen den...

Goiko argazkian agertzen direnak hauek dira:

Zutik: Bego Arzelus, Gloria Roca, Fray Jacinto, Iñaki Pardina, Pili Olertza, Jose Mari Mujika, Jose Angel Aperribai eta Amaia Osoro.

Makurtuta: Izaskun Akizu, Mirari Peña, Arantzatzu Egaña, Edurne Arzelus, Mikel Lazpiur eta Markos Mozos.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



MODELO BERRIAK
Kalitate hobea preziorik onenean!!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



Ibargarai, 11-13 BERGARA
Telefona eta faxa: 76 70 58



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

sofa
leku

centro
hogar
MUEBLES



a, eme... interiores



Estilo
guztietako altzariak
aurkituko dituzu
gure dendetan.

Zatoz, eta zuk
aukeratu!!

grupo



 **key**

SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 79 15 03
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92
sofa leku, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92
key, sukaldeko altzariak, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92